

INDARRAK BILTZEKO ASMOZ DIRA HIZKUNTZ NORMALIZAZIOAN JAUZI KUALITATIBOA EMATEKO

Euskararen geroa sendotzeko akordioa bultzatuko du Kontseiluak

■ Euskararen gizarte erakundeen Kontseiluak gizarte eragileen indarrak bildu eta gure hizkuntzaren etorkizuna bermatuko duen akordio zabala bultzatuko du. Asmo handi hori abiatzear dute *Bai euskarari* leloa izango duen kanpainarekin batera.

Jone Larrañaga / Donostia

EUSKARAK azken urte hauetan urrats handiak egin arren, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak XXI. menderako akordioa landu du, hizkuntz normalizazioa lortzeko bide luzea geratzen dela sinestuta. Akordio horren bitartez, euskararen unibertsoa osatzen duten talde eta erakundeek gizarte sektore guztietako indarrak bildu nahi dituzte, denak batera, euskara garai eta behar berrietara egokitzeko.

Etorkizunera begira, hizkuntzaren normalizazioan urrats handia egin nahi du kontseiluak, eta gizarteak ere pauso hori eman dezan eragin. Horretarako, ordea, guztion adostasuna ezinbestekoa dela uste du kontseiluak, eta beraz, funtsezkotzat jo du eragile sozial eta politikoko guztiak biltzea akordio horretara. «Euskal gizartea, mendebaldeko gainerako gizarteak bezalaxe, etengabeko aldaketa giroan bizi da gaur egun. Testuinguru horretan, euskararen unibertsoa osatzen dugunok geure burua prestatzeko egokieraz ohartu gara; euskararen etorkizuna bermatuko duen garai izatea nahi dugu mende berria, eta horretarako, etapa berrirako, guztion adostasuna behar da», dio XXI. mendeko akordioa azaltzeko Kontseiluak prestatu duen txostenak.

Euskara gure gizartea osatzen duten iritzi, jatorri eta kultura guztietako giza taldeen integrazio bide eta ondare dela azpimarratu nahi izan du kontseiluak, «aniztasunaren ispilu eta isla» dela. Eta beraz, Kontseiluak uste du arduraz jokatu beharra dagoela hizkuntzaren normalizazioa lortzeko ahalegin horretan.

Kontseiluaren helburu nagusia «euskarak irabaziak dituen presitigioa eta aldeotasun soziala areagotzea» da, hartara, «gainerako hizkuntza eta kulturak erdietsi duten betetasuna lor dezan» geure hizkuntzak ere, «Eragin nahi dugun jauzi kualitatiboak euskal gizarte osoari eragingo dio, euskara guztiona baita. Eta horretara iristeko funtsezkoa da euskal gizarte osoa bere baitan hartuko duen akordio sozial handia abian jartzea», gaineratzen du txostenak.

Bai euskarari lelopeko kanpaina • Akordio hori ahalbidetuko duen epealdi berriari udazken honetan bertan emango diote hasiera, Euskal Herriko bazter guztietara zabalduko den kanpaina baten bitartez. Honek orain 20 urte euskararen alde egin zen



Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak egin agerraldi bat.

JAGOBA MANTEROLA

bai euskarari kanpaina haren lelo bera izango du. Baina izenez ez ezik, izanez ere egin nahi da 70. hamarkadako kanpaina haren parekoa, haren izpiritua berreskuratu nahi baita.

«Duela 20 urte euskal gizarteak *bai euskarari* goiburupen indarrak bildu zituen etorkizun-urraspide funtsezkoak abian jarri. 20 urte eta gero, gaur egungo euskal gizarteak *bai euskarari* dio berriro, euskararen normalizazio bidean aukera egiteko indarrak agerraraziz, mende berrirako akordioa abian

jartzeko», dio Kontseiluak osatu duen txostenak.

Bai euskarari kanpaina datorren astean aurkeztuko dute publikoki Kontseilua osatzen duten gizarte erakundeek. Kanpaina handia izango da honakoa; izan ere, akordio hori lortze aldera, Euskal Herri osora eta gizarteko arlo guztietara zabalduko da. Ahalegin horretan, hasiak dira Kontseiluko kideak Euskal Herrian barna hainbat talde eta erakunderekin bilerak egiten. Kontseiluko arduradunek indar berezia jarriko duten lan arloan.

Azarotik aurrera, Euskal Herriko zoko guztietara zabalduko da kanpaina. Eskualdeko akordioaren asteak antolatuko dira, eta horien barruan, euskalgintzako partaideek herritarrei eta tokian tokiko eragile sozialei XXI. mendeko akordioa zertan den azalduko diete, eta haien sostengua eskatuko. Horrezaz gainera, hitzaldiak, bilerak, bisitak eta jai kutsuko ekitaldiak ere izango dira herrietan.

Oraingo *Bai euskarari* kanpaina, duela hogeiturokoa bezala, jai erraldoi batek burutuko du.

Kanpainaren helburuak

Mende berrirako akordioaren beharra aldarrikatu, eta helburu horretara begira indarrak batzeko, udazken honetan bertan kanpaina zabala egingo da Euskal Herrian, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak bultzatuta. Hona hemen kanpaina horrek izango dituen helburu nagusiak

- ✘ **Garai berriaren aurrean euskarak behar duen herritarren atxikimendua lortzea eta agerraraztea:** «Normalizazioaren alde orain arte egindakoa, lan eskerga izanik ere, ez da aski. Normalkutza prozesua ondo samar doalako ustea nahiko zabaldua dagoenez, Kontseiluak egiten duen euskararen egoeraren diagnostikoa gizarteratzen abiatu beharra dago. Ezagutzera eman behar ditugu orain arte herritarrek eta erakunde zein eragile sozial eta politikoei egindako ahaleginak, eta, aldi berean, eginkizun daudenak azpimarratu. Normalizazioaren aldeko gehiengo soziala agerrarazi beharra dago lehen-lehenik, horixe baita etapa honetako eragile nagusia. Bestetik, euskararen aldekoak diren edota izan daitezkeen sektore

erdaldunak ere aktibatu nahi ditu kanpainak».

- ✘ **Eragile sozialak garai berrirako akordioaren premiaz jabearaztea:** «Herritarrek ez ezik, eragileek ere euskararen normalizazioan duten zeregin funtsezkoaren berri zabaldu beharra dugu. Abiarazi nahi dugun aldi berriaren detonantea akordioa izango da. Akordioak Euskal Herriko eragile guztiak izan behar ditu kontuan ezinbestean. Horregatik, kanpainak akordioaren aldeko agerraldi edo indar erakusketa izan nahi du».

- ✘ **Gizartearen aurrean, Kontseilua euskararen normalizazioarako erreferente nagusi bezala aurkeztea.**

'Euskara Añanan Mingainean' jaiak hirugarren aldia ospatuko du igandean Gesaltzan

■ Omenaldiak eta musikaldiak nabarmenduko dira

L.K.G. / Gasteiz

AÑANA (Araba), Euskal Herriko eskualderik mendebaldekoenetakoa bat, festaz jantziko da datorren igandean, euskararen aldeko jaiaren hirugarren ekitaldian. *Euskara Añanan Mingainean* leloa du jaiak, eta atzo aurkeztu zuten prentsaurrekoan elkarte antolatzaileko kideek eta Mikel Mintegi, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara diputatuak.

Euskararen sustapena da festaren nahiz talde bultzatzailearen helburu nagusietako bat, eta horrela, euskal kulturaren berreskurapenean gehien nabarmendutako pertsonak omentzeko aprobetxatu dituzte orain arteko edizioak jaiaren antolatzaileek. Aurten berdin egingo dute igandeko jaiak: ekitaldi guztien artean, Txus Torre Gesaltzako Taldearen sortzailearen eta Fermin Herran idazle zenaren ekarriak gogoratuko dituzte.

Musikak ere, jakina, toki berezia izango du euskararen aldeko festan; arratsaldean, Oskorreren eta Alaitz eta Mainer bikotearen doinuak entzuteko parada izango dute Añanara hurbiltzen direnek.

Nolanahi ere, jaiak aparteko abagunea eskaini nahi die Euskal Herri osotik bertara hurbilduko diren milaka laguneri. Ibilbideko zenbait txokotan, gatza egiteko prozesua erakutsiko dute jaiaren antolatzaileek. Horretarako, kilo batzuk egingo dituzte espreski gida bezala ariko diren añanatarrek.

Datorren igandeko festa goizeko 10:00etan hasiko da. Hiru gune nagusi izango dira: herrian, eguerdiko ohiko ekitaldiak izango dira; frontoiak herri kirolak, rokodromoa eta musikaldiak hartuko ditu; eta igerilekua txikienezako esparrua izango da.

Añanako euskaltzaleen

lanaren goraipamena • Ez da erraza Añanan euskararen aldeko ekimenari eustea. Mikel Mintegi diputatuak biziki goraipatu zuen elkarte antolatzailearen lana: «Nabarmetzeko modukoa da Añana bezalako herri batean egiten ari den lana euskara sustatzeko gogoz. Izan ere, erraza izan daiteke Gasteizen euskaltegiren bat abian jartzea, baina ez, adibidez, Añanan, non biztanleriaren sakabanaketa handia den eta gelako ratioa lortzea zaila». Aurten Euskara Añanan Mingainean eta Gatzagain elkarteek batera jardun dute ekitaldiak antolatzeko orduan. ✘